

Gizaurre 3

Gaitasun gabetzea: Zaharren eskubideak babesteko bermea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Gipuzkoa
zure ondoan

© Gipuzkoako Foru Aldundia.
Gizarte Politikarako Departamendua.
SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroarekin lankidetzan.
2009 hirugarren edizioa.
Lege Gordailua: SS-88-2009.
Imprimaketa: Epel S.L.

Gaitasun gabetzea: Zaharren eskubideak babezteko bermea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Gipuzkoa
zure ondoan

Gipuzkoako populazioa zahartzen ari da eta gizarteak ezinbestean aurre egin behar die zahartzaroko premia berriei konpromisoz eta erantzukizunez, adinekoak gizartearen zati garrantzitsua direla ulertuz. Instituzioen eta gizartearen elkartasuna oinarritzat hartuta eraiki behar da gizarte politika, arlo honetan azaltzen diren eskariei erantzun eraginkorra eman ahal izateko.

Gaur egun Gipuzkoan 65 urtetik gorako 127.000 pertsona ditugu eta 2020. urterako kopuru hori 155.000 lagunera iristea espero da. Urtean 2.300eko gehikuntza, beraz. Argi dago erantzun egoki bat emateko prestatu egin behar dugula.

Gizartea zahartzeak duen ondorio garbientako bat ezintasun fisiko edo psikologikoren bat duten adinekoak gero eta gehiago izatea da. Kopuru hori etengabe hazten ari da. Gaur dementziak hirugarren lekuan daude, adinekoen osasun arazo guztien artean. Gipuzkoako egoitza eta eguneko zentroetan, erabiltzaileen erdiek dementzia prozesuak dituzte.

Horregatik, Departamentuaren oinarritzko helburu bat da arreta baliabideak pertsona horien premia espezifikoetara moldatzea, ahal den gehienez bizi kalitate ona izan dezaten. Asmo horrekin, Gipuzkoako Arreta Soziosanitarioko Lurralde Kontseiluan dagoeneko aurkeztu ditugu zenbait proposamen, eta adinekoen egoitzetako psikogeriatría unitateetan osasun arreta indartzen ere saiatzen ari gara. Unitate horietan gero eta plaza gehiago eta hobeak daude, eta behar ditugu.

Gipuzkoako egoitzetan horrelako unitate psikogeriatrikoak sortzen ari gara urratsez urrats, oreka gordez, eskualde eta azpieskualde guztietan, helburua 2012an 673 plaza edukitzera iristea dela.

Horrelako neurrien aldamenean beste mota batzuetako baliabideak ere behar dira, ordea. Horietako bat argitalpen honen gaia da: adineko pertsonak bere egintzen jabe izateko ahalmena galdu duenean, gaitasungabetzea, eta, horren ondorioz, tutoretza edo kuradoretza erabakitzea. Legezko neurri bat da, pertsona bera eta haren eskubideak eta interesak babesteko direla ziurtatzen duena.

Kontzeptu horiek errezeloak sortu ohi dizkigute, baina errezeloak gainditzeko modurik onena informazioa da. Horregatik, lan honen hirugarren edizio orraztua argitaratzerakoan, profesionalentzat eta familiakoentzat erabaki zuzenak hartzeko lagungaria izatea opa dugu.

Maite Etxaniz Balentziaga
Gizarte Politikako foru diputatua

1. Gaitasun gabetze deklarazioa, eskubideak babesteko modua	9
1.1 Zer da gaitasun gabetzea?	10
1.2 Nork eska dezake gaitasun gabetzea?	12
1.3 Zein kasutan deklaritzen da gaitasun gabetzea?	13
1.4 Gaitasun gabetze maila ezberdinak al daude?	13
1.5 Nola bermatzen da gaitasun gabetuaren babesa?	14
1.6 Non agertarazi behar da gaitasun gabetze deklarazioa?	14
2. Auzibidez gaitasun gabetutako pertsonen tutoretza	15
2.1 Zer da tutoretza?	15
2.2 Nor izan daiteke gaitasun gabetutako zahar baten tutore?	15
2.3 Nahitaezkoa al da tutore kargua?	16
2.4 Kendu al diezaioke epaileak tutoreari bere kargua?	17
2.5 Zeintzuk dira tutorearen eskubideak?	17
2.6 Zeintzuk dira tutorearen betebeharrak?	18
2.7 Tutoreak egintza guztiak egin al ditzake?	19
2.8 Zein da tutorearen erantzukizuna?	19
3. Kuradoretza	20
3.1 Zer da kuradoretza?	20
3.2 Zer gertatuko da gaitasun gabetutako pertsonak bere kasa egiten baditu kuradore baten laguntzaz egin beharreko egintzak?	20

4. Autotutoretza	21
4.1 Zer da autotutoretza?	21
4.2 Nork eska dezake autotutoretza eta zein gairi buruz?	21
4.3 Nola egin behar da?	21
4.4 Zertarako balio du?	21
5. Aurrez adierazitako borondateak	22
5.1 Zer dira aurrez adierazitako borondateak?	22
5.3 Nola gauzatzen da?	22
5.4 Zer jaso daiteke aurrez adierazitako borondateetan?	23
5.5 Aurrez adierazitako borondateen dokumentua egin ondoren iritziz alda daiteke?	24
6. Zenbat irauten du gaitasun gabetze eta tutoretza prozedurak?	25
7. Zenbat balio du gaitasun gabetze eta tutoretza prozedurak?	26
8. Nork eman diezaguke gai hauei buruzko informazioa?	27
9. Araudia	28

1

1. Gaitasun gabetze deklarazioa, eskubideak babesteko modua

Gaitasun gabetzeak errezeloak eta beldurra sortzen ditu guztiongan.

Gaitasun gabetzea eskubideak kentzearekin lotzen dugu; hau da, pertsona izaera murriztearekin. Eta inork ez dugu horrelakorik nahi ez guretzako, ez eta gure ingurukoentzako.

Buruan daukagu, oraindik, aspaldiko topikoa; hots, zahar bat gaitasun gabetzean irabazten ateratzen direnak bere zuzeneko ahaideak direla, jada libre baitira haren ondasunak eskuratzeko. Eta beldur gara hori bera pentsatuko ote duten guk horrelakorik egitea erabakiko bagenu.

Gaitasun gabetzea eta ondasunak eskuratu ahal izatea oso identifikatuta daude. Hainbestearino gainera, ondasunik ez dagoenean ez baitzaigu aukera hori burutik ere pasatzen, eta ahaztu egiten zaigu pertsonarekin berarekin lotutako egintzak ere babestu egin behar direla.

Gogora datozkigu prozedura judizialen zailtasunak, gastuak eta behar den denbora.

Eta, azken batean, geure buruari galdetzen diogu benetan merezi ote duen guzti horretatik pasatzeak eta horrenbeste tramite egiteak azkenean, oraingoaren oso antzekoa izango den egoerara iristeko, seguruenik epaileak tutore izendatuko baitu orain artean praktikan zeregin hori betetzen ari dena.

Gaitasun gabetzearen aurrean dugun mesfidantza, neurri batean, ez dauka arrazoirik.

Horregatik, zertarako balio duen eta nola egiten den jakiteak lagun diezaguke ulertzen, gaitasun gabetzea dela pertsona baten eskubideak eta interesak babesteko modurik onena, pertsona horrek bere kasa erabakitzeke gaitasuna galdu badu.

Gaitasun gabetze deklarazioa, eskubideak babesteko modua

1.1 Zer da gaitasun gabetzea?

Jaiotzean, pertsona guztiek eskubide eta betebeharren titular izateko gaitasuna dute, hau da, eskubideak eta betebeharrak izatekoa. Berezkoa den gaitasun horri, alor juridikoan, gaitasun juridiko deitzen zaio.

Gaitasun juridikoa izateak ez du esan nahi, ordea, jaiotzetik pertsonek zuzenean beren eskubide eta betebeharrak gauzatu ditzaketarik; izatez, badakigu umeez ezin dutela hori egin eta gurasoek egiten dutela haien izenean, gurasoek babesten dituztela umeen interesak.

Eskubideak eta betebeharrak gauzatu ahal izateko nahitaezkoa da pertsonak, batetik, egiten dituen egintzak ulertzeko gaitasuna izatea; eta bestetik, horiek egin nahi izateko gaitasuna. Bi baldintza horiek, ezagupena eta borondatea, betetzen direnean bakarrik esan liteke pertsonak bere kabuz erabakiak hartzeko, gobernatzeko, gaitasuna duela eta bere onespena baliozkoa dela. Horri deitzen zaio jarduteko gaitasuna izatea.

Legearen arabera, adinez nagusi direnek betetzen dituzte baldintza horiek eta, beraz, jarduteko gaitasuna dute. Halakoetan epaileak bakarrik erabaki dezake gaitasun hori ez dutela, baldin eta beren buruak gobernatzeko gai ez direla frogatzen bada. Erabaki hori epaileak bakarrik hartu dezake gaitasun gabetze epaiaren bidez.

Horrenbestez, gaitasun gabetzeak ez du mugatzen pertsonak eskubideen titular izateko duen gaitasuna, eskubide horiek zuzenean gauzatzeko duen gaitasuna baizik. Gaitasun gabetzearen helburua eskubide horiek babestea da, pertsonak bere egintzen edukia eta ondorioak ulertzeko gaitasuna galdu duenez, bere kabuz edo beste pertsona batzuen eraginez kaltetu lezaketen erabakiak ez hartzeko.

Gaitasun gabetze deklarazioa, eskubideak babesteko modua

Sarritan, zaharrek izaten duten adimen narriadurak ez die uzten beren buruak gobernatzen; hala ere, legearen aurrean guztiz gai izaten jarraitzen dute. Horrelakoetan, ohikoena da hurbileneko senideak izatea haien ordez erabakiak hartzen dituztenak.

Jarduteko modu hori (alor juridikoan egitatezko zaintza deitutakoa), gehienetan, interesatu guztien borondate on hutsez egiten da eta adinekoa ahalik eta ondoen zaintzeko asmoarekin.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da pertsona baten gaitasuna mugatzea oso gauza serioa dela eta pertsona horren askatasunean eta bizimoduan ondorio garrantzitsuak izango dituela. Horregatik, berme osoekin hartu behar da, batez ere interesen edo eskubideen arteko gatazkak daudenean. Esaterako, zaharrak noranahi joateko duen eskubideak topo egiten duenean haren segurtasunarekin eta ariskuak ekiditearekin kezkatu dauden senideen nahiarekin. Interesaren arteko gatazka hauek adinekoaren askatasuna bere hobe beharrez mugatuz erabaki ohi dira, haren borondatearen kontra, edo behintzat, haren onespenerik gabe.

Gaitasun gabetze prozeduraren zeregina, hain zuzen ere, berme gehienak eskaintzea da. Zeintzuk dira bere bertuteak?

1. Pertsonaren gaitasun gabetzea erabaki aurretik, epaileak eskatzen du froga dadila pertsona bere kabuz gobermatzeko gai ez dela.

Benetan frogatzen bada ez dela gai, epaileak, pertsonaren gaitasun mailaren arabera, gaitasun gabetzearen mugak baloratuko ditu eta zehaztuko du gaitasun gabetzea egintza guztietarako edo batzuetarako bakarrik den.

Gaitasun gabetze deklarazioa, eskubideak babesteko modua

Epailleak, gainera, pertsonaren beharretara hobeto egokitzen den babes mota ezarriko du¹ eta babes horretaz arduratuko den pertsona izendatuko du.

2. Gaitasun gabetze epaiak kontrol bat dakar epailearen eta fiskalaren aldetik. Horrek gaitasun gabetuaren eskubideen defentsa bermatzeko balio du; baina baita ere, beste pertsona batzuen aurrean egiaztatzeke babesle gisa izendatua izan denak behar bezala betetzen duela bere zeregina, adinekoaren interesak eta ez bereak defendatuz.

1.2 Nork eska dezake gaitasun gabetzea?

Legeak dioenez, gaitasun-gabetze deklarazioa eska dezakete:

- Ustezko ezgaituak, hau da, gaitasun gabetua izenago den pertsonak.
- Ezkontideak edo izatezko bikote-lagunak.
- Seme-alabek.
- Gurasoek.
- Anai-arrebek.

Fiskalak ere eska dezake, lehen aipatutako inor ez badago, edota egon arren deklarazio hori eskatu ez badute. Fiskalak hori egin ahal izateko ezgaitasuneko egoera bat egon litekeela jakin behar du. Eta nola jakin dezake hori?:

Gaitasun gabetze deklarazioa, eskubideak babesteko modua

-Herri agintari eta funtzionarioek, beren lana dela eta gaitasun gabetzeko arrazoiren bat egon litekeela uste badute, fiskalari jakinarazteko obligazioa dute.

-Edonork, senitartekoak bame, jakinarazi diezaiokete.

1.3 Zein kasutan deklaritzen da gaitasun gabetzea?

Gaixotasun iraunkor baten edota urritasun fisiko edo adimenekoaren ondorioz bere burua gobernatzeko gai ez dela frogatzen denean bakarrik gaitasun gabetu liteke pertsona bat.

Beraz, ez da nahikoa horrelako gaixotasun edo urritasun bat izatea, gainera horrek mugatu edo ezabatu egin behar du pertsonak egiten ari denaren jakitun izanik erabakiak hartzeko duen gaitasuna.

1.4 Gaitasun gabetze maila ezberdinak al daude?

Bai, maila ezberdinak daude eta epaileak erabaki behar du zenbatekoa den bakoitza, pertsonaren gaitasun maila kontuan hartuta:

-Partziala, egintza mota batzuetarako denean.

-Erabatekoa, egintza guztietarako denean.

Gaitasun gabetze deklarazioa, eskubideak babesteko modua

1.5 Nola bermatzen da gaitasun gabetuaren babesa?

Gaitasun gabetzea deklaritzen duen epaian, epaileak kasuaren beharrei ondoen egokitzen zaien babes erregimena zehaztu beharko du:

-Bere burua gobermatzeko gaitasuna oso galduta badu, epaileak **tutoretza** aukeratuko du; babes modu honek pertsona bera nahiz bere ondasunak hartzen ditu.

-Ezgaitasun mailak aukera ematen badu, epaileak **kuradoretza** aukeratuko du. Neurri honek ondasunei bakarrik eragiten die eta ez du mugatzen pertsonak duen askatasuna erabaki pertsonalak hartzeko.

Gaitasun gabetze epaian, epaileak babes hori bere gain hartuko duen pertsona izendatuko du:

-Tutoretza aukeratu badu, **tutorea** izendatuko du.

-Kuradoretza aukeratu badu, **kuradorea** izendatuko du.

1.6 Non agertarazi behar da gaitasun gabetze deklarazioa?

Gaitasun gabetze deklarazioak pertsonaren egoera zibilaren aldaketa eragiten du, beraz, Erregistro Zibilean inskribitu behar da.

2. Auzibidez gaitasun gabetutako pertsonen tutoretza

2.1 Zer da tutoretza?

Tutoretza, ezgaitzat jotako pertsona gaitasun gabetze epaiaren arabera bere kabuz egiteko gauza ez den egintza guztietan ordezkatzean datza, pertsonari berari nahiz honen ondasunen administrazioari dagozkion egintzak izanik ere.

2.2 Nor izan daiteke gaitasun gabetutako zahar baten tutore?

Legeak lehentasun hurrenkera bat ezartzen du tutorea izendatzeko:

- Tutoretzapean dagoen pertsonak izendatutako pertsona².
- Ezkontidea.
- Gurasoak.
- Seme-alabak.
- Anai-arrebak.

Hala ere, azken hitza epaileak du. Horregatik, gaitasun gabetutako pertsonaren interesak babesteko komenigarri irizten badio, aurreko pertsona horiek guztiak alde batera utz ditzake eta familiako horien artekoa ez den beste bat izenda dezake.

Legeak dioenez, ezin daitezke tutore izan egoera jakin batzuetan dauden pertsonak:

- Guraso betebeharrak ondo ez betetzeagatik seme-alaben zaintza galdu dutenak.
- Kartzelan daudenak.

Auzibidez gaitasun gabetutako pertsonen tutoretza

- Gaitasun gabetutako pertsonarekin kontrajarriak diren interesak dituztenak.
- Gaitasun gabetutakoarekin ezaguna den areriotasuna dutenak.
- Tutore zereginak behar bezala betetzea eragozten duten eta Legean berariaz aurreikusita dauden beste egoera batzuk.

Normalean, tutoretza pertsona bakar bati ematen zaio. Hala ere, zenbait kasutan egoki ikus daiteke bat baino gehiago izatea. Adibidez, pertsonaren zaintza eta honen ondasunen administrazioa bereiztea komeni denean. Tutoretza eman dakiok:

- Pertsona bati (alor juridikoan esango litzateke pertsona fisiko bati), baldin eta bere eskubide zibilak gauzatzeko guztiz gai bada.
- Erakunde bati (alor juridikoan, pertsona juridikoa), baldin eta irabazteko asmorik ez badu eta bere xedeen artean gaitasun gabetutako pertsonen babesa badago. Horietakoak dira tutoretza fundazioak deitutakoak.

2.3 Nahitaezkoa al da tutore kargua?

Legeak dioenez, tutore kargua nahitaezkoa da.

Nolanahi ere, tutore izendatutakoak kargutik desenkusatu daiteke; hau da, epaileari eska diezaiokete kargua betetzetik salbuetsi dezala, adin, gaixotasun, eginbehar pertsonal edo profesionalak direla ere, edota tutoretza zeregina betetzea eragozten duen beste edozein arrazoiengatik.

Epaileak arrazoi horiek aztertu beharko ditu eta ondoren kargutik salbuesten duen edo ez erabaki.

Auzibidez gaitasun gabetutako pertsonen tutoretza

2.4 Kendu al diezaioke epaileak tutoreari bere kargua?

Bai, epaileak tutoretza kargua ken diezaioke tutoreari. Alor juridikoan kargu kentze horri enkaitze deitzen zaio. Hori gerta daiteke ondorengo kasuetan:

-Izendatua izan ondoren, tutore izatea galarazten dion egoeraren batean egotea³.

-Tutoreak behar bezala ez betetzea tutoretza zeregina, ez dituelako bere eginbeharrak betetzen edota gaizki betetzen dituelako.

-Gaitasun gabetuaren eta tutorearen artean elkarbizitzako arazo larriak eta etengabeak sortzen direnean.

2.5 Zeintzuk dira tutorearen eskubideak?

Nagusiki, hiru puntutan laburbildu daitezke:

1. Bere tutoretzapekoak errespetatu eta obeditu dezan eskubidea.
2. Ordainsaria jasotzeko eskubidea du, baldin eta tutoretzapeko pertsonaren ondasunak horretarako aukera ematen badu. Epaileak ezarriko du ordainsariaren zenbatekoa.
3. Tutoretza zereginaren ondorioz kalteak edo galerak nozituz gero kalteordaina jasotzeko eskubidea du, beti ere tutoretzapeko pertsonak ondasunak baditu eta tutorea ez bada kalte eta galera horien errudun.

Auzibidez gaitasun gabetutako pertsonen tutoretza

2.6 Zeintzuk dira tutorearen betebeharrak?

Tutoreak ondorengo zereginak izango ditu:

A. Ezindutakoa zaintzea eta haren janari, jantzi, ostatu eta gizarte harremaneko premiak betetzeko behar den gutzia egitea, epaileari urtero ezinduaren egoeraren berri emanaz. Horrez gain, epailearen baimena beharko du ezindutakoa zentro batean sartzeko nahasketa psikikoaren ondorioz.

B. Tutoretzapeko pertsona ordezkatzeta gaitasun gabetze epaian adierazitako egintzetan. Ordezkaritza hori epaileen kontrolpean dago eta lege mugapen handiak ditu:

- Esaterako, tutoreak ezin du gaitasun gabetuaren izenean guztiz pertsonalak diren egintzak egin, adibidez, testamentua egin edota ezkondu.
- Beste egintza batzuetan ere ezingo du jardun, gaitasun gabetuaren interesekin kontrajarriak dauden interesak dituenean.

C. Tutoretzapeko pertsonaren ondasunak administratzea "guraso bat bailitzan". Zeregin horren barruan sartzen dira, hasieran ondasunen zerrenda bat egiteko betebeharra, ondasunak administratu edo kudeatzeko egintza soilak eta ondasunak erabiltzeko egintzak. Hala ere, azken hauek epailearen kontrolpean daude.

Beraz, tutoreak epailearen baimena beharko du higiezin bat saldu edo hipotekatu, aparteko gastuak egin, maileguan dirua eman edo hartu, eta aurrekoak bezala, legeak berariaz aipatzen dituen beste egintza batzuk egiteko.

Auzibidez gaitasun gabetutako pertsonen tutoretza

Kasu horietan epaileak baimena ematea edo ez erabaki dezake, beti ere ezindutako pertsonaren intereserako beharrezkoa edo baliagarria dela irizten badio. Horrez gain, tutoreak urtero bere administrazio zereginen berri eman beharko dio epaileari.

2.7 Tutoreak egintza guztiak egin al ditzake?

Ez, badira tutoreari debekatzen zaizkion egintzak, arrazoi etikoengatik eta bere karguarekiko kongruentziagatik:

-Ezin du jaso tutoretzapeko pertsonaren dohaintzarik.

-Ezin du tutoretzapekoa ordezkatu interes propioak dituen egintzetan. Horrelakoetarako, legeak aurreikusten du "defendatzaile judiziala" izendatzea, gaitasun gabetutako pertsonaren ordezkari eta defendatzaile gisa arituko dena.

-Ezin du gaitasun gabetuaren ondasunik erosi ez eta hari eskualdatu ere.

2.8 Zein da tutorearen erantzukizuna?

Lehendik aipatu diren erantzukizunez gain, oro har, esan daiteke tutorea bere erruz edo axolagabekeriaz tutoretzapekoari eragindako kalte eta galera guztien erantzule dela.

3.

3. Kuradoretza

3.1 Zer da kuradoretza?

Kuradoretza tutoretzakoa ez den beste babes modu bat da. Zertan bereizten da?

-Ez dio ezinduaren alderdi pertsonalari eragiten, haren ondasunen administrazioari baizik.

-Kuradoreak ez du ezindua ordezkatzeko, "laguntzen" baizik; hau da, zenbait egintza juridiko egiten laguntzen dio.

Normalean, kuradorearen laguntza behar duten egintzak gaitasun gabetze epaian adierazten dira, eta pertsonaren gaitasun mailaren arabera aldatzen dira. Gaitasun gabetze epaian ez badira egintza horiek adierazten, ulertu behar da tutoreek epailearen baimena behar duten egintzetarako dela⁴.

03.2 Zer gertatuko da gaitasun gabetutako pertsonak bere kasa egiten baditu kuradore baten laguntzaz egin beharreko egintzak?

Bi aukera daude:

1. Kuradoreak bere laguntzarik gabe egindako egintza berrestea, baldin eta ezgaitasun partziala duen pertsonaren intereserako egokia iruditzen bazaio.
2. Kuradoreak, edota ezindutakoak berak egintza baliogabetzeko eskaera egitea epaileari.

4

4. Autotutoretza

4.1 Zer da autotutoretza?

Autotutoretza, etorkizunean gure burua gobernatzeko gaitasuna galduz gero eta gaitasun gabetu behar izanez gero, gure ordezkari izatea nahi dugun pertsona aldeztu aurretik izendatzeko aukera da. Duela gutxi jaso da gure araudian.

4.2 Nork eska dezake autotutoretza eta zein gairi buruz?

Jarduteko ahalmena duen edonork, aldeztu aurretik bere buruari edo ondasunei buruz erabakiak har ditzake. Gainera, erabaki dezake zein den pertsonarik egokiena bere tutoretzaz arduratzeko, bai tutore izateko gogokoen duen pertsona izendatuz, bai inolaz ere ordezkari gisa nahiko ez lukeena adieraziz.

4.3 Nola egin behar da?

Notario aurreko eskritura publikoan egin behar da. Bestalde, notarioak erregistro zibilari jakinaraziko dio egoera hori inskribatu dezaten.

4.4 Zertarako balio du?

Pertsona batek tutorea izendatu balu bere autotutoretza dokumentuan, pertsona hori izango da, epailearentzat lehentasuna izango duena tutorea izendatzerakoan.

5.

5. Aurrez adierazitako borondateak

5.1 Zer dira aurrez adierazitako borondateak?

Pertsonak aldez aurretik zenbait mediku jarduerari buruz bere nahia adierazteko duten eskubideari deitzen zaio **aurrez adierazitako borondateak**.

5.2 Nork dauka eskubide hori?

Adinez nagusia ez den eta gaitasun gabetua izan ez den pertsona orok, askatasun osoz jardunez gero.

5.3 Nola gauzatzen da?

Aldez aurreko borondateak idatzizko agiri batean jaso behar dira.

- Notario baten aurrean.
- Aldez Aurreko Borondateen Euskal Erregistroaz arduratzen den funtzionario edo enplegatu publikoaren aurrean.
- Adinez nagusi diren hiru lekukoren aurrean, jarduteko nahikoa gaitasuna dutenak eta dokumentuaren egilearekin ondorengo loturaren bat ez dutenak: ezkontza, izatezko bikotea, bigarren mailarainoko odolkidetasuna edo ahaidetasuna, edo ondare harremana.

Aurrez adierazitako borondateak

5.4 Zer jaso daiteke aurrez adierazitako borondateetan?

Aurrez adierazitako borondateetan adierazten dituen pertsonaren bizitza helburuak edo baloreak jaso daitezke, eta horiek interpretatzeko jarraibideak eman daitezke. Gainera, zenbait osasun egoeratan hartu nahi den tratamendua ere jaso daiteke. Bere borondatea adierazteko gai ez den egoeran aurkituz gero, atendutako duen medikuak edo osasun taldeak errespetatu egin beharko ditu jarraibide horiek.

Aurrez adierazitako borondateen dokumentuan, ordezkari bat edo gehiago izendatu daitezke, momentua iristen bada, medikuaren edo osasun taldearen solaskide izan daitezen, eta bere baloreak eta jarraibideak interpretatzeko gaitasuna emango zaie.

Ordezkari izan daiteke adinez nagusi eta eginkizun hori betetzeko nahikoa gaitasun duen edonor, ondoko salbuespenekin:

- Notarioa.
- Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko funtzionarioa edo langilea.
- Agiria sinatzerakoan lekuko izan diren pertsonak
- Aurrez adierazitako borondateak aplikatu behar dituzten osasun langileak.
- Aldez aurreko borondateen agiria egiten duen pertsonaren osasun laguntza finantzatzen duten erakundeetako langileak.

Aurrez adierazitako borondateak

5.5 Aurrez adierazitako borondateen dokumentua egin ondoren iritziz alda daiteke?

Bai, aurrez adierazitako borondateen dokumentuaren egileak edozein momentutan aldatu, ordeztu edo baliogabetu dezake agiri hori, beti ere jarduteko gaitasun osoa badu. Kasu horietan, azkeneko agiria da aintzat hartzen dena.

Gainera, pertsonak gaitasuna, jarduteko askatasuna eta adierazteko aukera duen bitartean, bere borondatea aurrez adierazitako borondateen agirian jasotako jarraibideen gainetik dagoela.

5.6 Nola jakinarazten zaizkio aurrez adierazitako borondateak osasun zentroari?

Aurrez adierazitako borondateen agiria egiten duenak berak eman behar dio agiria osasun zentroari. Berak ezingo balu, familiakoek, bere legezko ordezkariak, agirian adierazitako ordezkariak edo, inskribatutako agiria bada, Aurrez Adierazitako Borondateen Euskal Erregistroak berak egin beharko lukete hori.

6.

6. Zenbat irauten du gaitasun gabetze eta tutoretza prozedurak?

Prozeduraren batezbesteko iraupena 10 hilabetekoa da.

7

7. Zenbat balio du gaitasun gabetze eta tutoretza prozedurak?

Gaitasun gabetze prozedura **dohakoa** izan daiteke.

Senitartekoei ustezko ezgaitasun egoeraren berri ematen badiote fiskalari honek prozedurari hasiera eman diezaion, ez du inolako kosturik izango ez gaitasun gabetu nahi den pertsonarentzat ez eta familikoentzat ere.

Prozedurak gastuak eragingo ditu partikularek zuzenean hasiera ematen diotenean, horretarako abokatu eta prokuradore bat kontratatu beharko baitituzte.

8.

8. Nork eman diezaguke gai hauei buruzko informazioa?

Argitalpen honen helburua da interesatu guztiei gaitasun gabetzearen ezaugarri nagusien berri ematea.

Liburuxka honetan zaharren gaitasun gabetzeaz eta tutoretzaz aritu gara; baina prozesu berdinak eman daitezke ezgaitasuna duten pertsonekin edo adimeneko gaixotasunak dituztenekin.

Informazio zehatzagoa nahi izanez gero edota kasu jakin baten inguruko aholkularitza espezializatua behar izanez gero, ondorengoetara jo behar da:

EPAITEGIETAKO FISKALTZAK

Probintzia Auzitegiko Fiskaltza

Teresa de Calcuta enp., 41. I
20071 **Donostia-San Sebastián**
Tel: 943 000 717

Justizia Auzitegi Nagusiko Fiskaltza

Barroeta Aldamar, 10. I
48001 **Bilbao**
Tel: 944 016 657

Probintzia Auzitegiko Fiskaltza

Gasteiz hiribidea, 18. I
01008 **Vitoria-Gasteiz**
Tel. 945 004 831

TUTORETZA FUNDAZIOAK

Adinekoen eta buruko gaisotasuna duten pertsonak:

Hurkoa Tutoretza Fundazioa

Paseo Árbol de Gernika, 16
20006 **Donostia-San Sebastián**
Tel: 943 468 956

Ferrerias 32. Behea
20500 **Arrasate-Mondragón**
Tel/Fax: 943 770 938

Adimen urritasuna duten pertsonak:

Atzegi Tutoretza Fundazioa

Okendo, 6. Behea
20004 **Donostia-San Sebastián**
Tel: 943 423 942

Gorabide Tutoretza Fundazioa

Colón de Larreategui, 26. Behea C
48009 **Bilbao**
Tel. 944 249 823

Usoa Tutoretza Fundazioa

La Paloma, 1. Behea
01002 **Vitoria-Gasteiz**
Tel. 945 258 966

Talde guztiak:

Bizkaiko Tutoretza Institutua

Ugasco, 5. I
48014 **Bilbao**
Tel. 946 083 740

9.

9. Araudia

-Kode Zibila.

-Biologia eta medikuntzaren aplikazioei dagokienez giza eskubideak eta gizakiaren duintasuna babesteko , Oviedon 1997ko apirilaren 4an, egindako hitzarmenaren berrespen agiria (1999ko urriaren 20ko BOE).

-41/2003 Legea, azaroaren 18koa, pertsona ezgaituen ondarea babestekoa eta xede horrekin Kode Zibila, Auziperatze Zibileko Legea eta zerga araudia aldatzekoa. (2003ko azaroaren 19ko BOE).

-7/2002 Legea, abenduaren 12koa, osasun arloko aurretiazko borondateena. (2002ko abenduaren 30eko EHAA).

-270/2003 Foru Dekretua, azaroaren 4koa, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa arautzekoa. (2003ko azaroaren 28ko EHAA).